

Hizkuntzaren bariazioa eta barietateak

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa II
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Aritz Galarraga Lopetegi

2. Ikasgaiaren azalpena eta testuingurua

Hizkuntzen estratifikazio soziala eta geolektala ikastea eta aztertzea, bai eta horien berehalako emaitza ere, hizkuntzetan gertatzen den hizkuntza-aldakuntza agerian utziz, hizkuntzak txertatzen diren hizketa-komunitatearen gizarte-aldakuntza bereizgarriaren isla gisa.

Ikasgai hau Hizkuntza eta Literatura espezialitateko bigarren modulu espezifikoa kokatzen da, eta, hortaz, hizkuntzalaritza-kontuak ditu ardatz nagusi, hizkuntzen ikas-irakaskuntza hartzaileetara nola egokitu ikasteko.

Moduluko lehen ikasgaiaren hizkuntzen ukipenaz aritu ostean, soziolinguistika-kontuekin jarraituko dugu honetan ere: oraingo honetan, hizkuntzaren bariazioa eta barietateak izango ditugu aztergai.

3. Konpetentziak

- Hizkuntza-aldakuntzako fenomenoak aztertzeko gaitasuna garatzea, hizkuntza-komunitateetako hiztunen identitate sozial eta geolektalaren arabera, diziplinaren metodologia eta prozedura bereizgarriak erabiliz.
- Hizkuntzen propietate eta ezaugarri sozialak eta dialektalak abstraitzeko gaitasuna, hizkuntza-aniztasunaren azterketatik abiatuta.
- Hainbat informazio-iturri erabiltzea eta prozesatzea, informazio esanguratsua ateratzeko, informazio hori izpiritu kritikoz interpretatuz eta ebaluatuz, analisiaren eta ebaluazioaren bidez.
- Munduko eleaniztasunaren eta multikulturalismoaren hizkuntza-aniztasunari buruz hausnartzea, hizkuntzek beren ingurune sozial eta geolektalean duten garrantziaz jabetzeko, arreta berezia jarritz euskal kasuari. % 15.0
- Gaiaren terminologiarik ohikoena eta metodologia espezifikoa erabiltzeko gai izatea.

4. Ikas-emitzak

- Hizkuntzaren aldakortasunaren alderdi nagusi batzuk (modalitatea; aldakortasun diafasikoa, e.a.) testu-generoaren bitartez irakasgarri egitea eta testu enpirikoak erabiliz kontestua eraikitzen duten propietateak ezaugarritu eta bereiztea.
- Hizkuntza gutxitua ardatz den testuinguru eleanitz batean, talde-lanean, hizkuntzaren aldakortasuna hizkuntzen irakaskuntza egitasmoak garatzeko baliatzea.
- Testu-generoen ezaugarri komunikatibo, diskurtsiboak eta linguistiko ezaugarritzea.
- Hizkuntza-aldaera funtzionalen eta dialektalen artean bereiztea.
- Euskalkien zenbait ezaugarri bereizgarri identifikatzea.
- Euskalkien eta estandarraren arteko harremanaz hausnartzea, arreta ikasgelan egin beharreko lanean jarrita.
- Hizkuntzen ikas-irakaskuntzan hizkera mailek edo erregistroek izan lezaketen eraginaz jabetzea.
- Hainbat iturritatik ateratako informazioa aztertu, ebaluatu eta erabiltzea.

5. Edukiak

1. Hizkuntzen aldakuntza: fenomenorako eta haren oinarri teorikorako sarrera.
2. Barietate estandarra: konfigurazioa, garapena eta ezaugarriak.
3. Hizkuntza-aldakortasuna eta hezkuntza
4. Aldaera dialektalak eta funtzionalak
5. Hizkuntza-jarrerak

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

GINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

Amonarriz, K. (2019). Euskararen bidegurutzetik. Bilbo: Elkar argitaletxea.

Euskara Institutua, EHU (2022-01-27an eskuratua). Euskalkiak, Sareko Euskal Gramatika (SEG). Hemendik eskuratua: www.ehu.eus/seg.

Hinskens, F., Auer, P. eta Kerswill, P. (2005). The study of dialect convergence and divergence: conceptual and methodological considerations. In *Dialect Change: Convergence and Divergence in European Languages*, 1-17. or. Cambridge: CUP.

Perez-Gaztelu, E., eta Azkarate, M. (2020). Euskara estandarrek bernakularizazio aldian. Camino, Artiagoitia, Epelde eta Ulibarri (arg.), Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena: Koldo Zuazori gorazarre, 601-616. or. Leioa: UPV/EHU.

Zarraga, A., Coyos, J.B., Hernández, J.M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, L.V., Uranga, B. eta Bilbao, P. (2010). Soziolinguistika eskuliburua. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

GEHIAGO SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA

Bonaparte, Louis-Lucien. 1862. *Langue basque et langues finnoises*. Londres.

----- 1863. *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. Londres.

----- *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes*. [1867 aldera egindako txosten argitaragabea].

----- 1869. *Le verbe basque en tableaux*. Berrargitaratua [J. A. Arana Martija, arg.], *Opera omnia vasconice* (i): 175-442. Bilbo: Euskaltzaindia, 1991.

Guiter, Henri. 1973. "Atlas et frontières linguistiques". [G. Straka eta P. Gardette, arg.], *Les dialectes romans de France à la lumière des atlas régionaux*: 61-109. Paris.

Intza, Damaso. 1922a. "Nabarroko aditz-laguntzalea". *Euskera* 3-2: 65-92.

----- 1922b. "Burundako euskalkia". *Euskera* 3-3: 3-42.

----- 1957. "Larraun eta bere euskalkia". *Euskera* 2: 91-105.

Irizar, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 ale). Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

Larramendi, Manuel. 1729. *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*. Faksimilea Donostia: Hordago, 1979.

Maia, Julian. 2001. "Euskara Batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen bilakaera irakaskuntzaren ikuspuntutik". *Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. biltzarra*, 119-128.

Mitxelena, Koldo. 1954. "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal". Berrargitaratua *Sobre historia de la lengua vasca* (i): 273-297. asjuren gehigarriak-10. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1988.

----- 1961. *Fonética Histórica Vasca*. 2. arg., osatua, asjuren gehigarriak-4. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1977.

----- 1964. Sobre el pasado de la lengua vasca. Berrargitaratua Sobre historia de la lengua vasca (i): 1-73. asjuren gehigarriak-10. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1988.

Pagola, Rosa Miren. 1991. "Larramendi eta dialektologia". [J. A. Lakarra, arg.], Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena 1690-1990: 247-265. Andoain: Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza.

Van Eys, Willen Jan. 1879. Grammaire comparée des dialectes basques. Paris.

Zabala, Juan Mateo. 1848. El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino. Donostia: Ignacio Ramón Baroja.

Zuazo, Koldo. 2014. Euskalkiak, euskararen dialektoak. Donostia: Elkar.discursivo. Fund. Infancia y Aprendizaje.